



## Nabarnizko Udala

6 0 0 0 0

### 2019ko AURREKONTUA

#### Idazkari-Kontuhartzailearen txostena

Udalbatza Osoari Alkateak proposatuko dion 2019ko aurrekontua, kapituluetan laburbilduta, hauxe da:

#### SARRERAK

kapitulua	aurrikuspenak	
I. ZUZENEGO ZERGAK	46.000,00	
II. ZEHARKAKO ZERGAK	5.000,00	
III. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	27.060,10	
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	441.226,00	
V. ONDAREZKO SARRERAK	7.310,00	
sarrera arruntak		526.596,10
VI. INBERTSIOEN ESKUALDAKETA	10,00	
VII. KAPITALAREN TRANSFERENTZIAK	78.352,20	
kapitalaren sarrerak		78.362,20
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>604.958,30</b>	

#### GASTUAK

kapitulua	kredituak	
I. LANGILEGOA	208.580,00	
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	180.350,00	
III. FINANTZA GASTUAK	100,00	
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	40.151,00	
gastu arruntak		429.181,00
VI. INBERTSIOAK	153.077,30	
IX. FINANTZA PASIBOAK	22.700,00	
kapitalaren gastuak		175.777,30
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>604.958,30</b>	

#### 1.- Egoera ekonomikoa eta finantzieroa

Aurrekontuaren %72 inguru Udalkutxaren sarrerak dira. Bestaldetik, 2000 eta 2001 ekitaldietan kreditu eragiketak gauzatu ziren, batez ere pilokatekua eraikitzeko, baina beste inbertsio batzuk egiteko ere (bideen konponketak eta abar). Maileguak frantses tipokoak dira, eta egun amortizazio gehiago itzultzen da interesak baino, eta horrela ageri da 2019ko aurrekontuan. Izan ere, maileguak ia erabat ordainduta daude, bi eta hiru urte baino ez dira falta guztiz amaitzeko, eta aurten oso interes gutxi ordainduko da.

Udalak daukan zorra (mailegu biak) jasagarria da: 2019ko abendularen 31ean bizirik (ordaintzeke) egongo den zorra (38.601,13 €), aurrekontuaren sarrera arrunten %7,33 da, beraz, zorrak ez dio Udalari arazorik suposatzen, ezta aurrekontua baldintzatzen ere.

## 2.- Ondarearen egoera:

Gizarte Lokaleko beheko solairua Osakidetzari laga zaio medikuaren kontsulta bertan edukitzeko. Haien gastu arruntei aurre egiteko dirulaguntza bat jasotzen da urtero, 1.800 €koa gutxi gora behera (herrian dauden osasun txartel kopuruaren arabera).

Udaletxe zaharraren beheko solairuan herriko taberna dago, 2015. urtean berriro adjudikatu zena, eta horregatik sarrerak ere egongo dira, ez askorik baina (1.800 €).

Arlaban onura publikodun basoaren zati bat kontsezioan utziko da aurten, behin-behineko adjudikazioa egin da dago, eta iharduera baimena tramitatzen ari da. Seguru asko udaberrirako mendia okupatuta egongo da, eta lehenengo urtealdiari dagokion kanona kobratu ahal izango da.

## 3.- 2019ko aurrekontua prestatzeko kontuan hartutako irizpideak

Lehehengoz, dirusarrerak aurrikusi dira. Nagusia Udalkutxakoa denez, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenetik kalkulatu da. Gainontzeko partidetako dirusarrerak kalkulatzeko, 2018ko aurrekontuaren exekuzioari begiratu zaio.

Gastuen aurrekontua kalkulatzeko, joan den urteko exekuzioari begiratu zaio.

## 4.- aurrekonturen helburuak

Udalaren jardunaren islada ekonomikoa da aurrekontua. Gastu arrunta nahi da ahalik eta gehien kontrolatu, eta inbertsioa lehenetsi. Helburua da zerbitzuak hobetzea eta ahal izanez gero, berriak eskeintzea, baina herritarrek diru gehiago ordaindu beharrik gabe.

Inbertsioetan, jarraituko da hirigintza plangintza idazten, eta espero dugu behin behineko onarpena urtea amaitu baino lehenago egin ahal izatea. Dirulaguntza, ordea, eskatuko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Aurrikusita dauden beste inbertsio batzuk:

- Aparkaleku eta gunek ibreak (1. Fasea): Iparragire etxe ondoko soloa desjabetu ondoren, lanak adjudikatu eta hasi ziren 2018an. Aurten ordainduko da lanen exekuzioa, lanen zuzendaritza eta segurtasun koordinazioa. Datorren urterako utziko dira hiri altxariak eta gainontzekoak.
- 2018an lortu zen dirulaguntza bat euriteek hondatutako udal bideak konpontzeko. Aurten egingo dira lanak, %90eko dirulaguntza daukatenak
- Arlaban mendiko pabiloia egokitu beharra dago, adjudikatarioari behar den moduan lagatzeko xedez. Saneamendu instalazioak egokitu, suteen kontrako estintoreak ipini eta beste lan txiki batzuk egin behar dira.
- Bestelako inbertsioak izeneko partida erabiliko da beste inbertsio txiki batzuk egiteko.

## 5.- aurrekontuaren edukia

### 5.1.sarrerak

- Lehenengo kapituluetakoa sarrerak (zuzeneko zergak) 2018ko ekitaldian likidatutako eskubideen arabera aurrikusi dira.



## Nabarnizko Udala

0 0 0 0 0

- Bigarren kapitulua lanen gaineko zergari dagokio. Zehaztasunez jakiterik ez dagoen arren, aurten baserri bat eraberritzeko lanak egingo direla aurrikusi da, eta horren arabera aurrikusi dira sarrerak kapitulu honetan.
- Hirugarren kapituluan tasak eta bestelako sarrerak ageri dira. 2018ko likidazioaren arabera kalkulatu dira kapitulu honetako partidak, baina Udalak Bilbao Bizkaia ur partzuegoan sartzea eskatu duenez, izan daiteke aurten ur eta estolderia zerbitzuengatik gutxiago kobratzea, udala partzuegora sartuko denetik aurrera tasa gehiagorik ez duelako kobratuko.
- Laugarren kapitulua berdin antzera geratu da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalkutxaren kopurua da nagusia, besteak dirulaguntza txikiak dira.
- Bostgarren kapituluan baso kontsezioa eta herriko tabernaren alokairua daude.
- Zazpigarren kapitulua (kapitalaren dirulaguntzak) inbertsio gastuak lagunduko dituzten dirulaguntzak jasotzen ditu. Bertan aurrikusitako dirulaguntza batzuk 2018garren urtean aginduta daude, baina oraindik likidatu gabe, eta aurten kobratzea espero dugu.

### 5.2.- gastuak

- Lehenengo kapituluak ez dauka aldaketa handirik 2018koarekin alderatuta, baina bai igo egin da apur bat, urtarrilan onartu delako %2,25eko igoera. Aldi baterako langile bat kontratatzekeo partida mantentzen da.
- Bigarren kapitulua 2018ko aurrikusitako likidazioaren arabera kalkulatu da.
- Hirugarren kapituluan gastu finantzeroak ageri dira. Joan den urtekoa baino baxuagoa da, mailegu mota hauetan gero eta interes gutxiago ordaintzen delako. Izan ere, mailegu baten interesik ez da ordainduko aurten.
- Laugarren kapituluan (dirulaguntzak) 2018ko likidazioaren arabera egin dira aurrikuspenak, eta ez da aurrikusi aldaketa nabarmenik.
- Seigarren kapituluan inbertsioak aurrikusi dira, aurten egingo direnak, eta inbertsioaren eranskinean zehaztuta daudenak.
- Bederatzigarren kapituluan maileguen amortizazioak datoz.

### 6.- Aurrekontuaren egonkortasuna

Aurrekontu egonkortasunari eta finantza sostengarritasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, aurrekontua orekatua egon behar da, edo superabita eduki behar du, finantzatzeko gaitasuna daukala bermatzeko. Finantzatzeko gaitasuna eta kasua balitz, beharrezana, kalkulatzeko, gastu eta sarrera ez finantzieroak konparatu behar dira. Gure kasuan,

Sarrera ez finantzieroak (1-7 kap) = 604.958,30 €

Gastu ez finantzieroak (1-7 kap.) = 582.258,30 €

Finantzatzeko gaitasuna= 22.700,00 €

2019ko aurrekontuak egonkortasunaren printzipioa bete egiten du, sarrerak gastuak baino handiagoak direlako. Honek esan nahi du Udalak bere gastuak finantzatzeko gaitasuna baduela, eta ez duela kanpoko finantzazioaren beharrik.

### 7.- gastuaren araua

2/2012 Lege organikoaren arabera, ezin daiteke gastu publikoa gehitu urte batetik bestera portzentai jakin batetik gora, PIB delakoari lotuta dagoena. 2019rako hazkunde tasa %2,70 da. Beraz, 2018an gastatu zena baino %2,70 gehiago ezin da gastatu 2019an.

Esan behar da gastu guztiak ez direla kontuan hartzen kalkulua egiteko. Adibidez, 9 kapitulu gastuak ezta dirulaguntzaz finantzaturako gastuak ere ez dira kontuan hartu behar.

Hauxe da 2019ko aurrekontuaren gastuaren arauaren konprobazioa:

#### **GASTUAREN ARAUA**

	2018ko aurrekontua	2019ko aurrekontua
<b>GASTU EZ FINANTZIEROAK, INTERESIK GABE</b>		
gastuen 1-7 kapituluak	594.323,97	582.258,30
gastuen 3. kapitulua	100,00	100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>594.223,97</b>	<b>582.158,30</b>

#### **SEC AJUSTEAK**

lurren salmenta eta gainontzeko inbertsio errealak (-)	- 10,00	- 10,00
aurrekontuari aplikatu gabeko gastuak (+/-)		
diruzaintza gerakinaz finantzaturako gastuak (-)		
besterik		
<b>GUZTIRA</b>	<b>- 10,00</b>	<b>- 10,00</b>

<b>EUROPA EDO BESTE ADMINISTRAZIOEN FONDOEZ FINANTZATURAKO GASTUAK (-)</b>	<b>- 41.413,08</b>	<b>- 82.022,20</b>
--	--------------------	--------------------

#### **BILKETAREN ALDAKETA**

arau aldaketa dela eta bilketaren gehikuntza (-)		
arau aldaketa dela eta bilketaren gutxitzea (+)		
<b>GUZTIRA</b>		

<b>GASTU KONPUTAGARRIA GUZTIRA</b>	<b>552.800,89</b>	<b>500.126,10</b>
------------------------------------	-------------------	-------------------

#### **GASTUAREN ARAUAREN KONPROBAZIOA**

2018 ekitaldiko gastu konputagarria	552.800,89	
2019rako aplikatu beharreko gehikuntza tasa (2,7%)	1,027	
2019rako gehienezko gastu konputagarria		567.726,51
<b>GASTUAREN ARAUAREN KONPROBAZIOA</b>		<b>67.600,41</b>



## Nabarnizko Udala

□ □ □ □ □

Ikusten denez, 2019ko aurrekontuak ez du gehienezko gastuaren kopurua gainditzen. Beraz, gastuaren araua betetzen da.

### 8.- zorraren jasangarritasuna

2/2012 Lege organikoaren arabera, zorraren jasangarritasuna zera da: oraingo eta etorkizuneko gastuak finantzatzeko gaitasuna, zor publikoaren eta defizitaren mugen barruan. Honek esan nahi du zorpetzeko eragiketarik ez direla baimenduko, zorraren bolumena sarrera arrunten %60 gaindituko badu.

Nabarnizko Udalak 2019ko abenduaren 31ean edukiko duen zorra hauxe da:

Erakundea	Azalpena	Zenbatekoa
Kutxabak	Pilotalekua eraikitzeko mailegua	31.999,22 €
Kutxabank	Pilotalekua eraikitzeko mailegua	6.601,91 €
GUZTIRA		38.601,13 €

Eta 2019 urtean aurrikusitako sarrera arruntak (1-5 kapituluak) 518.890,10 €koak izango dira. Beraz, zorra eta sarreraren arteko portzentaia %7,33 da, eta jasangarritasunaren baldintza betetzen du aurrekontuak.

Aurreko guztiagatik, 2019ko aurrekontu proposamenak lege araudi guztiak betetzen ditu. Udalbatza Osoak onartu beharko du, eta Bizkaiko lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko 2003/10 Foru Arauko 14 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera tramitatu.

Nabarnizen, 2019ko martxoaren 7an  
Idazkari-Kontuhartzailea



Emilia González Madariaga

□ □ □ □ □